




## Lekeitiar erraldoia Resurreccion Maria de Azkue IV

*Klaudio Barroeta*

### 16-Azkue Lexikografoa

Ez zan au ez, Azkueren bokazioa berak aitortzen dauan lez. Alan da be, Euskera-Espainera-Frantsez Iztegia, ikaragarritzko lana noski, asi eban bearrezko eta premiazko be-tebearra zalakoan, Koldo Mitxelenak diñoskunez. Euskal itzen kopurua geien urbildu dan iztegi au agertu zanean, pozezko oiuekin agurtu eben puntako izkuntzalariek, adibidez Hugo Schuchardtek. Ain zuzen be Atlas Linguistetatik leena prestatzen ebillenean Gillieron Frantziako lurretatik, ots, dialektologia-ko estudio barriak sortu ziranean, agertu zan Azkueren Iztegia. Euskalerrian zear bildutako euskalkien aztarnakin eta euskal literaturan eredutzat artu bear ziran idazleen lekukotasunaz baliatuz, lortu eban Azkuek euskeraren Iztegi istoriko bat osatutea. Ez da ba meritu gitxikoa Azkueren lan oroigarri au.

1890an Gramatika prestatzen ebillelarik, asmatu ta zirriboratu eban iztegia be ta atoan asi zan fitxak eta oarpenak idazten. 1901.eko Urriaren 6an Pierre Broussain adiskideari idazten dautso zera proposatuz: Euskera-Espainera-Frantses Iztegi bat 1902.eko neguan, bien artean argitaratzea eta argialetxeak be aipatzen deutsoz, Garniere, Hachette etabar. Frantsera textuak itzultzeko laguntzaille baten billa ebillen noski. Baña urriaren 9an erantzuten deutso Brussainek ortografia arazoak zuzendu arte itxarotea komeniko dala. Frantsesko itzulpen ori berberak erabakin dau orduan Azkuek eta 1901.eko Azaroan frantsezko ikasketak egiteari ekiten deutso. Zeregin onetan lankide izango dan François Joseph Lapeyre Ploermeleko anaiarekin arremonetan jartzen da zorionez. Gero Toursen Louis Cho-



lellet olerkaria izango da frantsesko itzulpenari azken begirada bat emongo deutsona.

1902.eko Urriaren 10ean Bizkaiko Diputazioari zuzentzen deutso Azkuek eskari bat Iztegiaren inprimaketa eskeñiz eta Enrike Aresti lendakariak iragartzen deutso 22ko billeran Probintziako Moldiztegian 500 ale inprimatzea erabaki zala; baña 1903.eko Martxoaren 10ean berrito jotzen dau Diputaziñora, Azkuek 1.500 ale inprimatzea eskatuz. Azkuerekin konponbide batera elduteko, Uztaillaren 3an Batzorde bat autatzen dau Diputazioak: Fernando Karranza, Jose Kruzeño eta Isidoro Leon izango dira aurrerantzean arazo onekin arduratuko diranak. Beste argiratzaille batzuen aitzinkontuak eskatzen deutsoz Diputaziñokoak eta 1903.eko udan Barzelonara doa Azkue ango moldiztegiak ikustera. Azkenean, 1903.eko Iraillaren 25ean, aitzinkontu bi deutsoz Azkuek Diputazioari: Bilboko Artes Graficas-ena eta Tourseko Alfred Mameet Fils Etxearena, baña azken au argitaratzailletzat artzea proposatuz. Abenduan erabaki zan Mame moldiztegia izango zala Iztegia inprimatuko ebana eta 1904.eko Urtarrillan 2an Tours eta Pariserantz doa Azkue elburu bigaz: Iztegiaren argitararzea eta Schola Cantorum-ek eratu dauen Konposaketa Ikastarora joatea.

Urte bi ta ´erdi beteko dauz Azkuek Toursean moldiztegiko probak zuzentzen 1905ean leen tomoa (A-LL) eta 1906.eko Maiatzean bigarrena (M-Z) kaleratu arte. Tourseko egotaldi onetan ainbat osteria egin ebazan, Pariseko Biblioteka Nazionalera, bertako Schola Cantorum-era, eta-bar, eta Londoneko Britist Museum-era ikerketak egiteko. Chillis´s Royal Hotelean ostatuzan 1904.eko Apirillaren len egunetan eta orduan lortu eban Bizkaia, Gipuzkoa ta Nafarroako iru Diputazioen ondarrerako Bonaparte Printzearen eskuiskribu baliotsuak berreskuratutea. Iruren artean banatu ziran eskuiskribu oneik Karmelo Etxegaraik 1905.eko Urriaren 5ean

egindako txostenaren arabera, Azkue berak eta Arturo Kanpionek mandatari lez izenpetu ebena, bizkaitar, gipuzkoar eta nafar batek banaketan parte artuz. Orain Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka izatera iritsi dan orduko bere liburategirako lortu ebazan, orrez gañera, Bonaparte Printzeak bere kontura argitaraturiko 69 lan.

Azkueren iru aletako Iztegia berargitaratu eban 1969an faksimil gisa Bilboko La Gran Enciclopedia Vasca eta Euskaltzaindia beste berargitalpen bat ari da, faksimil gisa au be, baña len argitalpenaren neurrian eta tomo batetan. Ez zan au izan Azkueren lan lexikografiko bakarra. 1918an kaleratu eban Poltsikorako Iztegia, Euskera Espainera, Espaina-Euskera, iru aletakotik laburtuta eta beste iztegi andi baten argitar-

tzea be asi eban, Espainera-Euskera Iztegia, leen atal batzuk kaleratuz.


### 17-Azkue Euskaltzaina

Ez eban Azkuek oraindik izkuntza biritza asi, 1886an Durangoko Euskal Jaietan Aristides Artiñanok Euskal Akademiaren Projektu bat aurkeztu ebanean. Aurkezpen onek ondoriorik izan ezta Pirineoen bi aldameneko euskalariek bateratzeko Hendaian (1901) eta Ondarribin (1902) egin ziran billerak.

Bizkaiko Diputazioaren Buru zan Adolfo Gabriel Urkijok prestatu ebazan 1906an Akademiaren Arauak baña ez zan orduan be ondoriorik gertatu. Azkue bera asiko da 1909an arazo onetaz arduratzen, Hugo Schuchardt jaunari 1914.eko Urriaren 27an adieraztera emongo deutsanez. Espainera-Euskera







Iztegia prestatzeko eta izkuntzaren ortografia arazoak zuzentzeko bearrezkoa iduritzen jakon Akademia bat sortzeaz k eskatuta dabil.

Baño banako alegiñak ez dau askorik balio eta ezer lortzen 1918.eko Urtarrillaren 25ean Bizkaiko Diputazioak beste egoaldeko iru Diputazioei Euskeraren Akademia bat sor dagien proposatu arte. 1918an Oñatin antolatzen dan Eusko Ikaskuntzaren I. Batzarrean proposaturiko Arautegia onartzen da, gero 1919an lau Diputazioek berresten dabenez, Bilbon bere egoitza izango dauen Euskaltzaindiaren euspena beraiek leporatuz. Leen lau euskaltzaiñek izendatzen dira, Arturo Kanpion, Luis Eleizalde eta Julio Urkijo: bizkaitar bi, gipuzkoar bat eta nafar bat. Gero geituko da amabiraño euskalzain kopurua. Orain, dakigunez, ogetalau dira osatzen daben Akademikideak edo Euskaltzainak.

Sekulako lana burutzen dau Azkuek Euskaltzaindian. Izatez bere bizitza guztian bera izan zan Akademia, edo eragille ordezteziña beintzat. Izkuntzaz benetako ikerketak egiteko ainbat bidaia egiten dauz atzerrietara, agiri garrantzitsuak gordetzen diran tokietara. 1922.eko Uztaillaren 10ean bidauntziz eltzen da Hamburgora, Berlinerako bidean, eta emen Abustuaren 5ean Humboldekin paper barriak aurkitzen dauz. 1908an, Kolonian egoanean, Berlinera joan zan leendabizi eta izkuntzari aleman onen eskuizkribuak ikusi ebazan. Zurichera doa 1922.eko Urrian. 1923eko Abustuan Vienan antolatu ziran Etnografiatzko Jardunaldietan partaide izan zan. 1904an ikusi eban British Museumer barriro doa 1928eko udan. 1927.eko Martxoaren 10ean Espaniako Erret Akademiak akademikide izendatu eban eta 1928.eko Abenduaren 30an Madridera jo eban sarrera itzaldia irakurzeko: Euskera bereisgarri batzuk beste izkuntza zaar batzuekin gonbaratuz. 1905.etik Pariseko Elkarte Linguistikoaren kidea zan eta 1922.eko Maiatzaren 20an Errusiako Zientzia Akademiak be kide izendatu eban.

Bidaia, ikerketa eta arremon guzti oneik Azkue zientzia arazoetan eldua erakusten deuskue, Gipuzkoako Diputazioan eratzen ziran Euskaltzaindiaren billeretan gai askotaz lanak aurkezten ebazanak, baña bereziki ooren izkuntza literario bakar bat arauperatzeko egiñak. Onetzaz Azkuek ebazan ideiak 1935.eko lan batetan aurkitzen doguz, Gipuzkera osotua, Gipuzkoako euskalkia artu eban Azkuek guretzat beste euskalkiekin bere

eredua osatuz. Lan au Gaubekak argitaratu eban Bermeon 184 orrialdedun liburu batetan.

Euskeraren batasun eta araupetza au bideratzeko bearreskoak izan ziran Azkuek berak aurretiaz egindako euskalkien ikerketak. 1923an argitaraturiko 930 orrialdedun Euskal Morfologia zinez egindako lanetik asita, euskalkietaz lanak prestatuko ditu, ots, Aezkera edo Petiriberro inguruetako mintzaira (1928, 126 orrialde) Erronkariko euskalkiaren berezitasunak (1932, 203 orrialde) eta Gipuzkoako aditza (1932, 151 orrialde) eun orrialdetik gorakoak bakarrik aipatuz, euskalkiak ondo ezagutu ondoren izkuntza baturantz doan Azkue erakutsiko deuskuenak. Euskalkiei buruz Aditz Flexionarioa eta Erizkizundi Irukoitza lan balio-garriak be burutu ebazan. Pirineoen bi aldamenetako Euskalerrian zear sarri egindako osterek izkuntza bizian murgiltzeko parada emon eutsozan Azkueri eta iñork baño geiago oroitgarri andiagoa euskerari eraikitzeko era.

Larogeita zazpi urtedun 1951an il zanean, euskal kulturako arlo guztietan egindako lanen oñordea itzi zezai guken. Edozeñek burua zurituko luke musika, folklore edo izkuntzaritza arloan, onek egindako lan bakar batekin. Danetarikoak egin ebazan Azkuek eta alako persona bat bertsortzea oso zaila izango da. Eta euskal aberriaren alde berak egin ebana guztiagaitik eskerrak emotea ezinezkoa da.

